



Gangutia (-a)

etxebizitza

Aldaerak:
Ahozkoa: Gángutti



43° 11' 9"

2° 35' 26"

Berriz Iruditan / T. Angoitiá

“... la Anteiglesia de Berriz, que comprende setenta y seis estados, equivalentes a doscientos ochenta y nueve metros de cabida, y la que es de dos habitaciones con sus correspondientes pisos cuadras y divisiones...”
DJE 3/98 or. (1872)

Baserri honen gaineko lehen arrasto dokumentala Bizkaiko su-erroidetan aurkitzen dugu 1745ean, *Gangutia*, alegia, eta horrela mantendu da mendeetan zehar, aldaera gutxirekin: *Gangutia* (1825, PE/1825), *Ganguticua* (1865, DJE, 1/133. or.) eta *Gangutiena* (1905, BUA, 40). Maiz nahastu ohi da baserri hau auzoaren behealdean Sarria alderantz doan bidearen ondoan aurkitzen diren *Gangoitienabekoa* (**Ikus Gangoitienabekoa**) eta *Gangoitienagoikoa* (**Ikus Gangoitienagoikoa**) baserriekin. Auzotarren artean *Gángutti* da forma erabiliena.

Bizitza biko baserria, bere fatxadan oso ondo ikus daitekeen moduan, guztiz era simetriko eta garbian antolatuta baitago. Hala ere, etxearen erdialdea dauka indartuta, banaketa sentsazioa ahulduz. Baoetan leihoak badira nagusi ere, sarrera eta balkoiak han zabaldu zituzten. Hala, atartera bi arkuren bitartez sartzen da, harlanduzko alfiz moduko batek berezita. Arku bakoitzaren gainean balkoi bana dauka eta gorengo pisuan, balkoi luzea, erdialdeko lau baoak lotzen dituena, etxean nagusitzen den goranzko joera apurtuz. Teilatuaren formari ego-

toponimia

Basagutxia (**Ikus Basagutxia**) sarreraren esan dugun bezala gutxi eta aldaera den guti hitzek “txiki” esan nahi zuten. Araban Artzeniega ondoan Soxo eta Soxoguti herriak ditugu adjektibo honen mendebaldeko erabileraren lekuko. Beraz Gaintxikia esango genuke gaur egun.